

ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

1. SARRERA

Dokumentu honetan (bertan aipatzen diren dokumentu guztiekin batera) www.bershka.com webgunea eta haren aplikazioa (aurrerantzean, biak batera, 'Plataformak') erabiltzeko eta bertan produktuak erosteko baldintzak ezartzen dira (aurrerantzean, "Baldintzak").

Plataformak erabili aurretik, irakurri arretaz Baldintza hauek, Cookie-en politika eta Pribatutasun-politika (baita "Datuak Babesteko Politikak" ere). Plataformen erabilera arautzen duten arau guztiak bete behar dituzu. Eskaera bat egiteko, horrez gain, irakurri eta berariaz onartu beharko dituzu baldintza hauek eta Pribatutasun Gidalerroetan emandako informazio guztia, eta haietara lotuta geratuko zara. Baldintza hauekin guztiekin ados ez bazaude, Plataforma horiek ez erabili.

Baldintzei edo Datuak Babesteko Politikei buruzko galderarik izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan, horretarako dugun formularioaren bidez. Baldintzak Plataforma hauetan eskuragarri dauden edozein hizkuntzatan gauzatu ahal izango da kontratua.

2. GURE DATUAK

BERSHKA izendapenarekin saltzen dira produktuak Plataforma hauetan, Espainiako sozietate BERSHKA BSK ESPAÑA, S.A.ren bidez, egoitza Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143 Arteixo (Coruña) helbidean duena eta Coruña Merkataritzaren Erregistroan erregistraturik dagoena, 1980. liburukian. Atal Orokorrean, 179. folioan. C-19163 orrian, honako datu hauekin: A78276854 IFZ; 900 456 003 telefono-zenbakia eta contact_es@bershka.com helbide elektronikoa.

3. ZURE DATUAK ETA PLATAFORMETAN SARTZEA

Zuri buruz ematen dizkiguzun informazio eta datu pertsonalak Datuak Babesteko Politikak ezarritakoaren arabera tratatuko ditugu. Emandako informazio eta datu guztiak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela onartzen duzu.

Ildo horretan, app-aren bidez (*smartphone* edo telefono adimendunetan, tabletetan edo BERSHKAk zure eskura jartzen dituen eta funtzionaltasun guztiak erabiltzeko gai diren bestelako gailu mugikorretan erabiltzeko diseinatutako aplikazio informatikoa) zure erabiltzaile-kontura sartzen zarenean, jakin saioa aktibo geratuko dela. Beraz, ez da beharrezkoa izango zure datuak berriro idaztea app-ean sartzen zaren bakoitzean. Zure erabiltzaile-kontura webgunearen bidez sartzen bazara, saioa aktibatuta utz dezakezu, dagokion laukia markatuta.

Hala ere, zerbait eragiketa egiteko, eta segurtasun-arrazoiak direla eta, zure datuak berriro sartzeko eskatu ahal izango dizugu.

Halaber, aukera izango duzu edozein unetan zure erabiltzaile-saioa ixteko, "Nire kontua" atalean dagoen "deskonektatu" botoia sakatuz.

4. GURE PLATAFORMAK ERABILTZEA

Gure Plataformak erabiltzerakoan eta horren bidez eskaerak egiterakoan konpromiso hauek hartzen dituzu:

- Legez onargarriak diren kontsultak edo eskaerak egiteko soilik erabiltzea gure Plataformak.
 - Eskaera faltsu edo iruzurrezkorik ez egitea. Arrazoietan oinarrituta halako eskaeraren bat egin dela uste badugu, hura balio gabetu eta kasuan kasuko agintaritzari jakinarazi ahal izango diogu.
 - Zure helbide elektronikoa, posta-helbidea eta harremanetarako beste datu batzuk ematea, zehatz eta egiati. Era berean, informazio hori zurekin harremanetan jartzeko erabili ahal izango dugu, beharrezkoa izanez gero (ikus gure Pribatutasun Politika).
- Behar dugun informazio guztia eman ezean, ezingo dugu zure eskaera bideratu.

Gure Plataformen bitartez eskaera bat egitean, adinez nagusia zarelara eta kontratuak egiteko lege-gaitasuna duzula adierazten duzu.

5. ZERBITZUAREN ERABILGARRITASUNA

Gure plataformen bitartez eskaintzen diren produktuak Espainiara baino ezin dira bidali.

Beste herrialde batetik Plataformen bitartez eskaera bat egin nahi baldin baduzu, egin dezakezu, jakina; halere, kontuan izan Espainiako Bershka dendetan edo Espainiako helbide batean bakarrik entregatu ahal izango dugula.

Aurrez esan denari kalterik egin gabe, kontuan izan <https://www.bershka.com/ic/> helbidearen bidez egindako eskaerak Kanariar uharteetan soilik entrega daitezkeela (etxean edo dendan), eta ezin direla entregatu penintsulan. Era berean, <https://www.bershka.com/es/> helbidearen bidez egindako eskaerak penintsulan soilik entrega daitezke (etxean edo dendan), eta ezin dira entregatu Kanariar uharteetan.

6. ESKAERAK NOLA EGIN

Eskaerak egiteko, online erosteko prozesuari jarraitu eta "Baimendu ordainketa" sakatu beharko duzu. Jarraian, zure eskaeraren hartu-agiria duen mezu elektronikoa jasoko duzu, edo SMS bat telefonoa soilik eman badiguzu ("Eskaeraren berrespena"). Bestalde, eskaera bidaltzen dugunean, horren berri emango dizugu posta elektronikoa bidez, edo SMS baten bidez telefonoa soilik eman badiguzu ("Bidalketaren berrespena"). Bidalketa-berrespenari zure eskaeraren xehetasunak jasotzen dituen tiket elektronikoa ere erantsiko zaio ("tiket elektronikoa"). Bide bera erabiliko duzu ere, eskaera jasotzeko prest dagoela abisatzeko.

7. PRODUKTUEN ESKURAGARRITASUNA

Eskaera guztiak produktuak eskuragarri egoteari lotuta daude. Produktuen hornidurari lotutako arazorik egotekotan, edo izakinak agortuz gero, ordaindutakoa itzuliko dizugu, hala badagokio.

8. AKATSAK ZUZENTZEKO BALIABIDE TEKNIKOAK

Gure Plataformetan erabiltzaile gisa erregistratzeko datu pertsonalak sartzekoan akatsen bat izango balitz, aukera izango duzu "Nire Kontua" atalean horiek zuzentzeko.

Edozelan ere, erosketa-prozesuan emandako datu pertsonalekin lotutako akatsak zuzendu ahalko dituzu bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren telefono-zenbakira deituta (900 456 003) edo contact_es@bershka.com helbidera mezu elektronikoa bat helarazita. Era berean, gure Pribatutasun-politikan zehazten den zuzentzeko eskubidea erabili ahal izango duzu.

Gure Plataformetan erosketa-prozesuko zenbait ataletan berrespen-leihoak agertuko dira; datuak behar bezala eman ez badira, ezin izango da eskaerarekin aurrera egin. Halaber, erosketa-prozesuan zehar saskian gehitu dituzun produktu guztiei buruzko xehetasunak ematen ditu webguneak; ordaindu aurretik, hortaz, aukera izango duzu eskaeraren datuak aldatzeko.

Ordaindutakoan akatsen bat antzematen baduzu eskaeran, jarri harremanetan berehala gure bezeroaren arreta-zerbitzuarekin, arestian aipatutako telefono-zenbakian edo posta elektronikoa bidez, akatsa zuzentze aldera.

9. ENTREGA

Eskaera egin aurretik, zure beharrei hobe egokitzen den entrega modua aukeratu behar duzu. Beste zerbaitez adostu ezean, Bidalketa Berrespen bakoitzean zehaztutako produktuek osatutako eskaera bidaliko dizugu adierazitako epean eta aukeratutako bidalketa-metodoaren arabera eta, atzerapenik gabe edozelan ere, 30 egun naturaleko epean gehienez ere, Eskaeraren Berrespenaren datatik zenbatzen hasita.

Produktuen pertsonalizazioaren ondoriozko baldintza batzuen edo ezusteko edo arrazoi berezien ondorioz, entrega data alda daiteke.

Baliteke hainbat zentrotatik bidaltzea zure eskaerako produktuak; hortaz, litekeena da bereiz eta epe ezberdinetan entregatzea.

Arazoien batengatik entregatzeko eguna bete ezin badugu, horren berri eman eta erosketarekin aurrera egiteko aukera emango dizugu, entregatzeko beste egun bat ezarrita; bestela, eskaera bertan behera utzi ahal izango duzu, eta ordaindutakoa osorik jaso. Nolanahi ere, kontuan izan larunbatetan eta igandeetan ez dugula etxerako entregari egiten, baldin eta opari-txartel birtuala ez bada; izan ere, zuk adierazitako egunean entregatuko da aipatu txartela.

Baldintza hauetan, "entrega" egin dela edo eskaera "entregatu" dela ulertuko da zuk edo zuk adierazitako beste norbaitek produktuak eskuratzen dituenean. Sinadura bidez ziurtatuko da entregarako adostutako helbidean eskaera jaso izana.

Opari-txartel birtuala eman dela ulertuko da Opari Txartelaren Erabilera Baldintzetan ezarritakoaren arabera eta, nolana ere, txartela zuk adierazitako helbide elektronikora bidali den datan.

10. ENTREGA EZIN BADA EGIN

Zure eskaera entregatu ezin badugu, hura uzteko leku segururen bat bilatzen saiatuko gara. Leku segururik topatzen ez badugu, gure biltegira eramango dugu berriro zure eskaera. Gainera, eskaera non dagoen eta berriz bidal diezazugun zer egin behar duzun azaltzen duen oharra utziko dizugu. Adostutako orduan entregarako zehaztutako lekuan egongo ez bazara, jarri gurekin harremanetan beste egun bat adosteko.

Eskaera entregatzeko prest zegoenetik 15 egun igarotakoan guri egotzi ezin dakizkigukeen zioak direla eta eskaera entregatu ez bada, kontratua bertan behera utzi nahi duzula ulertuko dugu eta indargabetutzat hartuko dugu. Kontratua indargabetzearen ondorioz, ordaindutako zenbateko osoa itzuliko dizugu, entrega-gastuak barne (eskaintzen dugun oinarritzko entrega-modalitate merkeena ez den bestelako modalitate bat aukeratzeak eragindako gastu osagarriak izan ezik), behar ez bezalako atzerapenik gabe; kontratua indargabetutzat hartzen dugunetik 14 egunetan egingo dugu itzulketa gehienez ere. Kontuan izan kontratua indargabetzearen ondoriozko garraioak aparteko gasturen bat izan dezakeela berekin; halakoetan, baimena izango dugu dagozkion gastuak eransteke.

Klausula hau ez zaio ezarriko opari-txartel birtualari; izan ere, opari-txartel birtuala Opari Txartelaren Erabilera Baldintzetan eta aurreko 9. klausulan xedatutakoaren arabera entregatuko da.

11. ARRISKUA ETA JABETZA BESTERENTZEA

Produktuen arriskuak zure erantzukizuna izango dira horiek jaso bezain pronto.

Produktuen jabe izango zara horiei lotuta zordundutako zenbateko guztiak jasotzen ditugunean (bidalketa-gastuak barne), edo, bestela, entrega egiteko unean (balidin eta hori beranduago gertatzen bada), aurreko 9. klausulan jasotakoari jarraikiz.

12. PREZIOA ETA ORDAINKETA

Plataformetako prezioek BEZ dute (zerga hori ezarri behar denean), baina kanpo uzten dituzte bidalketa-gastuak. Azken horiek zordundutako zenbateko osoari gehituko zaizkio, gure Erosketa-gidaren Bidalketa atalean adierazten denaren arabera.

Prezioak edozein unetan alda daitezke; hala ere, gerta daitezkeen aldaketek ez dute eraginik izango dagoeneko Eskaeraren berrespena jaso duten eskaeretan. Behin erosi nahi dituzun produktu guztiak aukeratuta, gehitu itzazu saskian. Ondoren, eskaera bideratu eta ordaindu beharko da. Horretarako, erosketa-prozesuan zehaztutako urratsak jarraitu beharko dituzu, horietako bakoitzean eskatzen zaizun informazioa betez edo egiaztatuz. Halaber, erosketa-prozesuan zehar, ordaindu aurretik, zure eskaeraren datuak aldatzeko aukera izango duzu. Erosketa-gidan aurkituko duzu erosketa-prozesuari buruzko azalpen xehatua. Gainera, erregistratutako erabiltzaile bazara, egindako eskaera guztien zerrenda izango duzu eskuragarri, Nire kontua atalean.

Visa, Mastercard, American Express eta Affinity Card txartelak, jasotzean ordaintzea, Affinity Card, PayPal eta Bizum (bankuetxe bakoitzak erabiltzen dituen eta haien operazioen zein aplikazioaren mende) aukerak erabil ditzakezu ordaintzeko. Halaber, Fashion Retail, S.A.k igorritako abonu-txartelarekin edo, txartelarekin edo opari-txartelarekin ere ordaindu ahal izango duzu erosketaren prezio osoa edo zati bat. Aukera izango duzu, bestalde, jasotzean ordaintzeko; kasu horretan, Espainiako BERSHKA bilketa-dendetan onartzen diren ordainketa-metodoak erabil ditzakezu.

Espainiako BERSHKA denda jakin batzuetan erabilgarri dauden gailu elektronikoren baten bidez eskaera eginez gero, orobat, aukera izango duzu aipatu dendetan erabil daitezkeen edozein modutan ordaintzeko.

Jakinazten dizugu Fashion Retail, S.A.-k, helbide hau duenak Avenida Diputación, Inditex Eraikina, Arteixo, A Coruña (Espainia), eta A Coruña Merkataritza Erregistroan erregistratua dagoenak 3425 liburukian, 49. orrialdean, C-47731 orrian, eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia A-70301981 duenak, Bershka BSK España, S.A.-ren izenean egingo dituela kobrantzak eta, dagokienean, gure Plataformen bitartez egindako ordainketekin lotutako itzulerak ere egingo dituela.

Baimenik gabeko sarbideen arriskua murrizteko, zure kreditu-txartelaren datuak kodetu egingo dira.

"Baimendu ordainketa" botoia sakatuz gero, kreditu-txartela zurea dela edo opari-txartela zein abonu-txartela legez erabil dezakezula berresten ari zara.

Kreditu txartelak erakunde igorlearen egiaztapenei eta baimenei lotuta egongo dira; erakunde horrek ordainketa baimentzen ez badu, ez dugu inolako atzerapenen edo entregatu gabekoen ardurarik hartuko, eta ezingo dugu zurekin inongo kontraturik gauzatu.

13. GONBIDATU GISA EROSTEA

Gure webguneak gonbidatu gisa erosteko aukera ere ematen du. Erosketa-modalitate honetan, zure eskaera izapidetzeko nahitaezkoak diren datuak baino ez zaizkizu eskatuko. Erosketa-prozesua amaitzean, erabiltzaile gisa erregistratzeko edo erregistratu gabeko erabiltzaile gisa jarraitzeko aukera eskainiko zaizu.

14. EROSKETA AZKARRA

Erosketa azkarreko funtzioari esker (aurrerantzean, "Erosketa azkarra"), Plataformetan errazago egin ahal izango dituzu erosketak; izan ere, ez duzu bidalketa, fakturazio zein erosketari lotutako daturik eman beharko erosketa bakoitzean. Erosketa azkarra "Erosketa-saskia" atalean dago erabilgarri. Erosketa azkarra erabiltzeko, zure txartelaren datuak gorde beharko dituzu. Plataformetan onartzen den edozein txartelarekin ordaintzerakoan gorde ahal izango dituzu datuok, "Gorde nire txartelaren datuak" aukera sakatuta. Horretarako, zure txartelaren datu hauek gordeko dira: txartel-zenbakia, titularraren izena (idatzita dagoen bezala) eta iraungitze-data. Zure txartelaren datuak gorde eta Erosketa azkarra erabiltzeko, indarrean dauden datu pertsonalen tratamendurako Baldintzak eta Pribatutasun-politika onartu beharko dituzu. Erosketa azkarra erabiltzea onartzean, baimena ematen duzu tresna horren bidez ordaindutako erosketak horri lotutako txartelean zorduntzeko. Dena dela, zure eta txartelaren igorlearen artean adostutako baldintzen arabera erabiliko da beti txartela. Erosketa azkarrean aukera izango duzu nahi dituzun txartel guztien datuak gordetzeko; horretarako, ordainketa bat egin beharko duzu gutxienez horietako bakoitzarekin. Txartel bat baino gehiagoren datuak gorde nahi izatekotan, azkeneko gordetako datuei dagokien txartela izango da zure "Gogoko txartela". Txartel horretan, hain zuzen, zordunduko dira automatikoki Erosketa azkarraren bidez egindako erosketak. Hala ere, aukera duzu zure Gogoko txartela aldatzeko, webguneko "Nire Kontua" atalean. Erosketa azkarra erabiltzeko, erosketa-saskian agertuko den "Erosketa azkarra" botoia sakatu baino ez duzu egin behar. Berehala agertuko dira zure erosketaren bidalketa-, fakturazio- eta ordainketa-datuak pantailan. Pantaila horretan agertzen den informazioa ezin izango da editatu; horrenbestez, daturen bat zuzena ez bada, ez ezazu erosketa-prozesua amaitu. Erosketak beste datu batzuekin egiteko, ez erabili Erosketa azkarra delako zerbitzua. Erosketa azkarrari lotutako Gogoko txartela ere aldatu ahal izango duzu, webgune honetako Nire Kontua atalean. Honako klausula honetan adierazitakoa ez da aplikagarri izango gonbidatu gisa erosten baduzu.

15. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA ETA FAKTURAZIOA

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 68. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Espainiako BEZa aplikatzen den eremuan entregatuko dira produktuak, baldin eta entregatzeko helbidea Espainian badago, Kanariak, Ceuta eta Melilla salbu. BEZ tasa aplikagarria unean-unean indarrean dagoena izango da, dagokion produktuaren arabera. Helmuga Kanarietan, Ceutan eta Melillan duten eskaerei ez zaie BEZa aplikatuko, 37/1992 Legearen 21. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lurralde horietako bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera horiei dagozkien zergak eta muga-zergak aplikatzeari utzi gabe.

Faktura euskarri elektronikoan egiteko berariazko baimena ematen diguzu. Hala ere, nahiago izanez gero, faktura paperean ere helaraz diezazukegu. Eskatu besterik ez duzu egin behar. Nezeroentzako arreta zerbitzuarekin hitz egin hura eskatzeko, horretarako dohainik eskura duzun baliabide baten bitartez.

16. ITZULTZE-POLITIKA

Erosketari uko egiteko legezko eskubidea

16.1 Uko egiteko eskubidea

Kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa kontratatzen ari bazara, eskubidea duzu kontratua 14 egun naturaleko epean ukatzeko, justifikatu beharrik gabe. Uko egiteko epea 14 egun naturalen buruan amaituko da, zuk edo zuk adierazitako hirugarren batek (garraiolaria ez dena) produktuak erosi zenituztenetik; zure eskaera osatzen duten produktuak banaka entregatzen badira, berriz, 14 egun naturalen buruan amaituko da epea, zuk edo zuk adierazitako hirugarren batek (garraiolaria ez dena) azken produktua erosi zenuten egunetik zenbatzen hasita. Uko egiteko eskubidea erabili ahal izateko, BERSHKARI jakinarazi beharko diozu, honako helbide honetan: Pol. industrial INDITEX. Camino de Tordera a Palafolls z.g. 0.6 km, 08490 Tordera. (Bartzelona); edo 900 456 003 telefonora deituta, contact@bershka.com helbidera idatzita edo harremanetarako gure formularioa erabilia. Kontratuari uko egiteko erabakia ageriko adierazpena eginez jakinarazi beharko diguzu (esaterako, ohiko posta edo posta elektronikoa bidez mezua bidalita). Baldintza hauei erantsita datorren uko egiteko formularioaren eredu

erabil dezakezu, baina ez da nahitaezkoa. Uko egiteko epea betetzeko, eskubide hori erabiltzeko asmoa duzula jakinarazi baino ez duzu egin behar, dagokion epea bete aurretik.

Atzera egitearen ondorioak

Uko eginez gero, egindako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, hasierako bidalketako helbidera arteko entrega-gastuak barne (eskaintzen dugun oinarritzko entrega merkeena ez den bestelako entrega-modalitate bat aukeratzeak eragindako gastu osagarriak izan ezik), behar ez bezalako atzerapenik gabe, eta, betiere, kontratuari uko egitea erabaki duzula jakinarazten diguzunetik gehienez ere 14 egun naturaleko epean. Hasierako transakzioa egiteko erabili zenuen ordainketa-modu bera baliatuz itzuliko dizugu zenbateko hori, besterik adierazten diguzun kasuetan izan ezik, itzulketa zein ordainketa-bitarteko bidez egitea nahi duzun berariaz adierazita. Itzulketak ez du bestelako gastu gehigarriarik ekarriko. Aurrekoa gorabehera, itzulketa atxiki ahal izango dugu produktuak jaso arte, edo produktuak itzuli izanaren frogagiria aurkezten duzun arte, bi aukeretatik lehen gertatzen dena.

Hainbat aukera dituzu produktuak itzuli edo entregatzeko: Espainiako edozein BERSHKA dendatan; Espainiako entrega-gunereren batean, zure eskaerarekin batera bidaliko dugun itzultze-etiketa erabiliz; gure webgunean bidez, guk antolatutako mezulari/courier baten bidez; edo produktuak Bershka-ri bidalita. Pol. Ind. Inditex, Ctra. Tordera - Palafolls Z/G, KM 0.6, 0849 Tordera (Bartzelona); ez da atzerapenik egon behar, eta, nolahi ere, kontratuari uko egiteko erabakia jakinarazi zenigunetik 14 egun naturaleko epean itzuli beharko dira produktuak. Epea bete duzula ulertuko da produktuak aipatutako epea bukatu baino lehen itzultzen badituzu.

Produktuak Espainiako BERSHKA dendaren batean edo Espainiako entrega-gunereren batean itzuli ezean, zure kontu izango dira produktuak itzultzeak sortzen dituen zuzeneko kostuak. Azken kasu honetan, gogora ezazu produktuekin batera Bidalketa berrespenarekin jaso duzun tiket elektronikoen kopia inprimatuta entregatu beharko duzula.

Produktuak Espainiako BERSHKA dendaren batean edo Espainiako entrega-gunereren batean itzuli ezean, zure kontu izango dira produktuak itzultzeak sortzen dituen zuzeneko kostuak, Erosketa-gidan azaldutako baldintzetan.

Produktuen izaera, ezaugarriak eta funtzionamendua ezartzeko ez beste manipulazioen baten ondorioz produktuen balioa txikituz gero, zu izango zara erantzule bakarra.

16.2 Kontratuari uko egiteko eskubidea

Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei legez aitortutako eta aurreko 16.1 klausulan aipatutako kontratuan atzera egiteko eskubideaz gain, 30 eguneko epea emango dizugu, produktuen bidalketa berretsi zenetik zenbatzen hasita, produktuak itzultzeko (hurrengo 16.3 klausulan adierazitakoak salbu, horiei ez baitagokie atzera egiteko eskubidea). Opari-txartelaren Erabilera Baldintzen arabera itzuliko da delako txartela.

Kontratuak uko egiteko xedatzen duen eskubidearen epean itzultzen badituzu produktuak, baina legezko epea iraungi ondoren, produktuengatik ordaindutako prezioa baino ez zaizu itzuliko.

Zure kontu izango dira produktua itzultzearen ondorioz sortutako kostu zuzenak, baldin eta Espainiako BERSHKA dendaren batean edo Espainiako entrega-gunereren batean itzultzen ez badituzu. Azken kasu honetan, gogora ezazu produktuekin batera Bidalketa berrespenarekin jaso duzun tiket elektronikoen kopia inprimatuta entregatu beharko duzula.

Uko egiteko duzun eskubidea erabili ahal izango duzu aurreko 16.1 klausulak xedatutakoari jarraikiz; kontratuari uko egiteko asmoa dagokion legezko epetik kanpo jakinarazten badiguzu ere, 30 eguneko epean eman beharko dizkiguzu produktuak, Bidalketaren berrespenetik zenbatzen hasita.

16.3 Xedapen orokorrak

Ez duzu kontratuari uko egiteko eskubiderik izango produktua honako hauetakoren bat bada:

- Produktu pertsonalizatuak.
 - Jatorritzko bilgarririk ez duten musika CD/DVDak.
 - Higiena-arrazoiak direla eta zigilua duten produktuak, entregatu ostean zigilua kendu bazaie.
- Kontratuari uko egiteko duzun eskubidea jaso zenituen produktuak egoera berean itzultzen badituzu baino ez da ezarriko. Ez da dirurik itzuliko produktua, irekitzeaz gain, erabili bada, produktuak entregatu ziren egoera berean ez badaude edo kalteren bat badute; beraz, kontuz ibili beharko duzu produktua(k) zure zaintzapean dagoen/dauden bitartean. Produktuak Espainiako edozein BERSHKA dendatan edo Espainiako entrega-gunereren batean itzuli ahalko dituzu, jarraian azaldutakoaren arabera.

Itzultzeak BERSHKA dendan.

Espainiako edozein BERSHKA dendatan itzuli ahalko dituzu produktuak, baldin eta dendak itzuli nahi duzun produktuari dagokion atal bera badu. Kasu horretan, halako dendetako batera joan beharko duzu eta produktuekin batera Bidalketaren berrespenean jasoko zenuen tiket elektronikoa entregatu; Plataformen kontuan ere gordetzen

da aipatu tiketa. Dendara zoazenean, tiket elektronikoa zure mugikorraren pantailan aurkeztu dezakezu, edo alde zuzenetik inprimatu. Aukera horrek ez dauka kostu gehigarririk zuretzat.

Espainiako entrega-guneetan produktuak itzultzea

Plataformetako "Nire kontua" ataleko "Eskaerak eta itzultzeak" sailean aurkituko dituzun Espainiako entrega-gunereren batean itzuli ahalko dituzu produktuak. Horretarako, "Entrega-gune" bidezko itzultzea eskatu beharko duzu aipatutako atalean; jarraian, itzultze-etiketa bat helaraziko dizugu posta elektronikoki bidez, hura paketean itsatsi eta tokiko zure posta-bulegoan utzi dezazun. Produktua pakete berean utzi eta tokiko zure posta-bulegoan utzi beharko duzu. Jaso zenuen pakete berean utzi beharko duzu produktua, eta webguneko "Nire kontua" ataleko "Eskaerak eta itzultzeak" sailean, posta elektronikoki edo aplikazioko "Nire itzulerak" atalean agertzen diren argibideei jarraitu. Gonbidatu gisa erosi baduzu, aukera izango duzu Espainiako entrega-gunereren batean produktuak itzultzea eskatzeko, Eskaeraren berrespenarekin batera bidali genizun esteka erabiliz. Kasu kasuko egiaztapenak egin eta gero, mezu elektronikoki bat jasoko duzu. Bertan aurkituko duzun etiketa paketean itsatsi beharko duzu, eta gaitutako guneren batera eraman. Aukera horrek ez dauka kostu gehigarririk zuretzat.

Guk antolatutako mezulari/courier baten bidez itzultzea

Itzultze-eskabidearen bidez jarri behar duzu gurekin harremanetan, zure etxean produktua nola jaso antolatzeko. Jatorrizko bilgarria bota baduzu, beste edozein bilgarri erabil dezakezu itzultzea egiteko, baldin eta bilgarri berri horrekin artikulurik galduko ez dela ziurta badaiteke. Eta web-orriko "ITZULTZEAK" atalean dauden argibideei jarraitu beharko zaie. Gonbidatu gisa erosi baduzu, produktuak posta bidez itzuli ahal izatea eska dezakezu, Eskaeraren berrespenarekin batera bidali genizun esteka erabiliz. Kasu kasuko egiaztapenak egin eta gero, mezu elektronikoki bat jasoko duzu. Bertan aurkituko duzun etiketa paketean itsatsi beharko duzu. Itzultze modu honetan, zuk ordaindu beharko duzu bidalketaren gastua. Zenbat balio duen jakiteko, kontsultatu gure EROSKETA-GIDA, eta zuzenean deskontatuko zaizu zenbatekoa itzultzetik.

Produktuak Plataformen bidez eskaintzen zaizkizun doako aukeren bidez itzuli nahi ez badituzu, zeure gain hartu beharko dituzu itzultzearen kostuak. Bidalketa zeure kabuz egitea erabakitzen baduzu, gogora ezazu Bidalketa berrespenarekin jaso duzun tiket elektronikokiaren inprimatutako kopia entregatu beharko duzula produktuekin batera. Produktuak garraioa zorretan dela itzultzea erabakitzen baduzu, eskubidea izango dugu izan ditzakegun gastuak zuri zorduntzeko.

Produktua aztertu ostean, ordaindutako zenbatekoak itzultzeko eskubidea duzun ala ez jakinaraziko dizugu. Garraioari dagozkion gastuak soilik itzuliko dira uko egiteko eskubidea legezko epean erabiltzen denean eta aipatu eskaera osatzen duten produktu guztiak itzultzen direnean. Dirua lehenbailehen itzuliko dizugu, gehienez ere 14 egunetan, uko egiteko asmoa zenuela jakinarazi zenigun egunetik zenbatzen hasita. Hala ere, produktuak jaso arte edo produktuak itzuli izanaren frogagiria aurkezten duzun arte itxaron dezakegu dirua itzultzeko, bi aukeretatik lehen gertatzen dena. Erosketa ordaintzeko erabili zenuen ordainketa-modu berean itzuliko da beti dirua, itzulketarako opari-tiketa aurkezten bada salbu. Azken kasu honetan, dirua txartel baten edo abonutiket baten bidez itzuliko da.

Zure gain hartuko dituzu produktuak itzultzeari lotutako kostuak eta arriskua, arestian adierazi bezala. Zalantzarik izanez gero, aukera duzu gurekin harremanetan jartzeko, bai gure harremanetarako formularioaren bidez, bai 900 456 003 telefonora deituta.

Jasotzean ordaintzeko eta dendako kutxan bertan ordaintzeko aukeren bidez egindako eskaerak Espainiako BERSHKA dendetan itzuli behar dira nahitaez. Eskaera dendan entregatzeko eta ordaintzeko prest zegoenetik 10 egun igaro ondoren guri egotzi ezin dakizkigukeen arrazoiak direla eta eskaera ez bada jaso, kontratua bertan behera utzi nahi duzula ulertuko dugu eta indargabetutzat hartuko dugu. Era berean, Espainiako zenbait BERSHKA dendatan erabilgarri dauden gailu elektronikoen bidez egindako eta dendako bertako kutxan ordaindutako eskaerak Espainiako BERSHKA dendetan itzuli beharko dira, nolana ere. Atzera eginez gero, ordaindu zenituen zenbateko guztiak itzuliko dizkizugu, erabili zenuen ordainketa-modu bera baliatuta.

16.4 Itzultzeak Kanarietan, Ceutan eta Melillan

Kanarietan, Ceutan edo Melillan entregatutako produktu bat itzuli zein aldatu nahi izanez gero, edozein BERSHKA dendatara jo besterik ez duzu, klausula honetan azaldutakoaren arabera. Halakorik egitea ezinezkoa balitz, jarri gurekin harremanetan 900 456 003 telefono-zenbakian, gurekin nahiz gure ordezkariaren batekin produktua mezulari baten bidez nola jaso adosteko edo, bestela, kostuak zure gain hartuta produktuak itzultzeko.

16.5 Produktu akastunak itzultzea

Entregatzeko unean produktua kontratuan ezarritakoarekin bat ez datorrela uste baduzu, jarri berehala harremanetan gure harremanetarako formularioaren bidez, produktuaren datuak eta kaltea adierazita. 900 456 003 telefonora ere deitu dezakezu, eta zer egin azalduko dizugu. Produktua Espainiako edozein BERSHKA dendatan

itzuli ahal izango duzu, Espainian gaitutako entrega-guneren batean edo produktua lehen aipatutako helbidera bidalita. Itzulitako produktua ondo aztertuko dugu; zentzuzko epe baten barruan, itzultzea edo aldaketa, kasuan-kasuan, bidezkoak diren jakinaraziko dizugu posta elektronikoko bidez. Produktua ahalik eta azkarren itzuli edo aldatuko dugu, 14 eguneko epean betiere, baztertutako produktua itzuli edo alda daitekeela berresten duen mezu elektronikoa bidaltzen dizugun egunetik zenbatzen hasita.

Akatsen bat dutelako itzultzen diren produktuengatik ordaindutako zenbatekoak osorik itzuliko dira, baldin eta akatsa benetakoa bada, baita hura entregatzeak berekin ekarritako gastuak eta produktua guri helarazteko zuk ordaindutakoak ere. Erosketa ordaintzeko erabili zenuen ordainketa-modu bera erabiliz itzuliko dizugu zenbatekoa. Edonola ere, indarrean dagoen legediak onartutako eskubideak mantendu egiten dira.

16.6 Atzera egiteko eskubidea eta eskaerak atzerrian itzultzea.

Eskaera Plataformen bidez eta Espainia ez den Europar Batasuneko beste Estatu-kide batetik egin baduzu, aurreko 16.1, 16.2, 16.3 eta 16.4 baldintzak aplikatuko dira; hala ere, guk antolatutako mezulari/courier baten bidezko itzultzeak Espainiako jatorrizko helbide batetik egin ahaliko dira bakarrik.

Halaber, jakinarazten dizugu ez dugula inolako obligaziorik (16.5 baldintzan aurreikusitakoa salbu, zeinari 16.6 baldintza aplikatuko baitzaio) Espainiako jatorrizko helbidera arte sortutako gastuak ez diren beste gastu batzuk itzultzeko edo Espainiako lurraldetik kanpora bidaltzearen gastuak itzultzeko.

17. BERMEAK

Kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa kontratatzen baduzu, neurri zuzentzaileak, doan, edukitzeko eskubidea daukazu, ondasunekin ados egongo ez bazina. Bermeak eskainiko dizkizugu Plataformen bidez saldutako produktuetan, produktu mota bakoitzarentzat ezarritako lege-zehaztapenen arabera. Hartara, produktua entregatu eta bi urtetara adierazten den adostasunik ezari erantzuna emango diogu.

Produktuak kontratuarekin bat datozela ulertuko da baldin eta: (i) gure deskribapenarekin bat badatoz eta Plataformetan aurkeztu ditugun ezaugarriak badituzte; (ii) antzeko produktuak bezala erabil badaitezke; eta (iii) mota bereko beste produktu batzuetan espero daitezkeen ohiko kalitate eta prestazioak badituzte.

Horren harira, produktuak kontratuarekin bat ez badator, horren berri eman beharko diguzu lehengo 16.5 atalean zehaztutako prozesuari jarraikiz, eta xede horretarako edozein komunikazio bide erabiliz.

Saltzen ditugun produktuak, artisauro- produktuak batik bat, ekoiztean erabiltzen diren material naturalen berezko ñabardurak izan ditzakete askotan. Ezaugarriok, besteak beste, zerroak, ehundura, korapilo edo kolore ezberdinak izatea, ez dira akats edo taratzat joko. Aitzitik, halakorik egon daitekeela onartu eta aintzatetsi beharko litzateke. Kalitate handieneko produktuak baino ez ditugu aukeratzen; hala eta guztiz ere, ezaugarri naturalak saihetsezinak dira, eta produktu bakoitzaren berezitasuntzat hartu behar dira.

Gure merkataritza-bermeak ez du eraginik izango indarrean den legeak aitortzen dizkizun eskubideetan.

18. ERANTZUKIZUNA ETA ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA

Baldintza hauetan berriaz kontrakoa xedatu ezean, gure Plataformetan erositako edozein produkturen gain dugun erantzukizuna hertsiki mugatuko da produktuaren erosketa-preziora.

Hala ere, eta legeak kontrakoa ezartzen ez badu, ez dugu jarraian aipatzen diren galeren ardura hartuko, horien jatorria edozein delarik ere:

- Diru-sarreren edo salmenten galerak;
- Negozioaren galera;
- Kontratuen galera;
- Aurreikusitako aurrezkien galera;
- Datuen galera; eta
- Kudeatzeko edo bulegoko ordutegiko denboraren galera

Plataforma irekiak da izaki, eta informazio digitala gordetzekoan eta transmititzekoan akatsak egon daitezke; hala bada, ezin dugu hauen bidez transmititutako edo eskuratutako informazioaren zehaztasuna eta segurtasuna bermatu, webguneak kontrakoa adierazi ezean.

Legeak ahalbidetzen duen heinean, berme guztiak baztertzan ditugu, kontsumitzaile eta erabiltzaileen aurrean legez baztertu ezin daitezkeenak salbu.

19. JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

Aitortu eta onartzen duzu edozein copyright, marka erregistratu eta Plataformetako material eta edukien gaineko jabetza industrialaren eta intelektualaren gainerako eskubideak guri dagozkigula beti, edota material eta eduki horiek erabiltzeko lizentzia eman zigutenei. Material hori guk geuk edo hori erabiltzeko lizentzia eman zigutenek espresuki baimentzen dugun moduan soilik erabili ahal izango duzu. Horrek ez du esan nahi Plataformak ezin izango dituzunik zure eskaerari edo harremanetarako datuei buruzko informazioa kopiatzeko erabili, beharrezkoa den neurrian, betiere.

20. BIRUSAK, PIRATERIA ETA BESTELAKO ERASO INFORMATIKOAK

Ezin dituzu Plataformak modu desegokian erabili birusak, troiarrak, harrak, bonba logikoak edo teknologikoki kaltegarria edo suntsigarria den beste edozein programa edo material apropos sartzeko asmoarekin. Ez saiatu baimenik gabe Plataformetan sartzan, ezta orrialdea dagoen zerbitzarian edota gure Plataformekin zerikusia duen edozein zerbitzari, ordenagailu edo datu-basetan ere. Hitzematen duzu ez dituzula Plataformak erasoko zerbitzuak zein zerbitzu banatuak ukatzeko erasoen bidez. Klausula hau ez betetzeak aplikagarria den araudian zehaztutako arau-hausteak ekar litzake berekin. Araudi hori hausten baldin bada, agintari eskudunei jakinaraziko diegu, eta haiekin lankidetzan arituko gara erasotzailea nor izan den jakiteko. Horrez gain, klausula hau urratuz gero, Plataformak erabiltzeko baimena kenduko zaizu berehala. Ez dugu zerbitzua ez emateko edozein eraso, birus edota zure ordenagailuari, ekipamendu informatikoari, datuei edo materialei eragin dakiekeen bestelako programa zein materialen ondorioz gerta litekeen kalte teknologiko edo galera ororen ardura hartuko, baldin eta Plataforma hauek erabiltzearen edo bertatik zein horri atxikitako beste orri batetik deskargatutako edukien ondorioz gertatzen badira.

21. GURE PLATAFORMETAKO ESTEKAK

Gure Plataformek beste batzuen web-orri eta materialetarako estekak badituzte; lotura horiek informazioa zabaltzeko baino ez dira izango, eta ez dugu horien gaineko inongo kontrolik. Beraz, ez dugu horiek erabiltzearen eraginez gertatutako kalte edo galeren gaineko erantzukizunik hartuko.

22. IDATZIZKO MEZUAK

Araudi aplikagarriaren arabera, idatziz helarazi behar dizkizugu zenbait informazio edo mezu. Plataforma hauek erabiltzean, gure arteko komunikazio gehienak elektronikoa izango direla onartzen duzu. Posta elektronikoa bidez jarriko gara zurekin harremanetan, edo Plataformetan jarriko ditugun abisuen bitartez helaraziko dizugu informazioa. Kontratuaren ondorioetarako, ados zaude aipatu hedabide elektronikoa erabiltzearekin; halaber, onartzen duzu kontratu, jakinarazpen, informazio edo bidaltzen dizkizugun gainerako komunikazioak bide elektronikoa erabiliz egingo ditugula, idatzizkoek bezalako lege-baldintzak betez. Baldintza horrek ez du eraginik izango legez dituzun eskubideetan.

23. JAKINARAZPENAK

Ahal den neurrian, harremanetarako gure formularioaren bidez bidaliko dizkizugu jakinarazpenak. Aurreko 22. klausulan adierazitakoaren arabera, eta kontrakoa erabakitzen ez den bitartean, eskaera egiten duzunean adierazitako helbide elektronikora edo posta-helbidera bidali ahal izango dizkizugu jakinarazpenak. Jakinarazpenak jaso eta ongi heldu direla ulertuko da gure Plataformetan jartzen diren unean bertan, mezu elektronikoa bidali eta 24 ordotara edo gutun bat bidali eta hiru egunetara. Jakinarazpena gauzatu dela ziurtatzeko, nahikoa izango da hau egiaztatzea: gutunaren kasuan, helbidea zuzena zela, ondo zigilatuta zegoela eta postetxean edo postontzian behar bezala entregatu zela; posta elektronikoa kasuan, berriz, hartzailak zehaztutako helbide elektronikora bidali zela frogatu beharko da.

24. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK LAGATZEA

Kontratua loteslea da zuretzat nahiz guretzat, baita gure ondorengo, lagapen-hartzaile eta kausadunentzat ere. Ezin izango duzu kontraturik edo hartatik eratorritako eskubide eta betebeharrak transmititu, laga, zergapetu edo beste moduren batean transferitu aurretik gure baimen idatzia jaso gabe. Kontratu bat transmititu, laga, kargatu, azpikontratatu edo beste edozein modutan transferi dezakegu, baita hartatik eratorritako eskubide edo betebeharren bat aldatu ere, kontratua indarrean dagoen edozein unetan. Zalantzarik ez izateko, transmisio, lagatze,

karga edo bestelako besterentzeek ez dute eraginik izango legeak kontsumitzaile gisa onartu dizkizun eskubideetan; bestalde, ez dituzte inola ere baliogabetuko, murriztuko edota mugatuko eman ahal izan dizkizugun berariazko nahiz isilbidezko bermeak.

25. GURE KONTOLETIK KANPOKO GERTAERAK

Kontratupean hartutako betebeharren bat urratzen bada edo berandu betetzen bada, ez gara gorabehera horren erantzule izango, baldin eta gorabeheraren arrazoia gure zentzuzko kontroletik haraindiko gertaeren ondore bada ("Ezinbesteko kasua"). Ezinbesteko kasuek gure arrazoizko kontroletik kanpo jazotzen den edozein ekintza, gertaera, betearazpen-falta, omisio edo istripu jasotzen dute, besteak beste, honako hauek:

- Grebak, ugazaben itxierak edo bestelako neurri aldarrikatzaileak.
- Astinaldi zibila, errebolta, inbasioa, eraso edo mehatxu terrorista, gerra (aitortua edo aitortu gabea), gerra-mehatxua edo gerrarako prestaketak.
- Sutea, leherketa, ekaitza, uholdea, lurrikara, hondoratzea, izurritea edo beste edozein hondamendi natural.
- Trenak, itsasontziak, hegazkinak, motordun garraioak edo bestelako garraioak, publikoak nahiz pribatuak, ezin erabili ahal izatea.
- Telekomunikazioen sistema publiko nahiz pribatuak ezin erabili ahal izatea.
- Gobernu edo agintaritzaren publiko ororen egintzak, dekretuak, legediak, araudiak edo murrizketak.
- Itsas edo ibai garraioaren, posta-garraioaren edo beste edozein garraio motaren grebak, hutsegiteak edo istripuak. Kontratuak ezarritako betebeharrak eten egingo dira Ezinbesteko kasuak dirauen bitartean; halaber, betebeharrak betetzeko epea ere luzatuko da, kausak dirauen bitartean. Zentzuzko bitarteko guztiak jarriko ditugu Ezinbesteko kasuari amaiera emateko edo konponbide bat aurkitzeko, hura egonda ere gure betebeharrak kontratuaren arabera betetze aldera.

26. UKO EGITEA

Kontratuari edo Baldintza hauei jarraikiz zure gain hartutako betebeharrak zorrotz betetzeko ez eskatu izanak, edo Kontratu edo Baldintza horiei jarraikiz guri dagozkigun eskubideak edo ekintzak ez gauzatzeak ez du eskubide edo egintza horien uko egite edo mugaketarik eragingo, eta ez zaitu betebeharrak betetzetik salbuetsiko. Eskubide edo ekintza jakin bati uko egiteak ez du kontratuko edo Baldintzetako beste eskubide edo ekintzei uko egitea eragingo. Baldintza hauetakoren bati edo kontratuko eskubide nahiz ekintzei uko egiteak ez du ondorioz izango baldin eta espresuki uko egiten dela adierazten ez bada eta Jakinarazpenen atalean xedatutakoari jarraikiz idatziz jakinarazten ez bazaizu.

27. DEUSEZTASUN PARTZIALA

Baldintza hauetakoren bat edo kontratuko xedapenen bat baliogabea edo ondorioz gabekoa dela aitortzen badu agintari eskudunaren erabaki irmo batek, gainerako baldintzek eta zehaztapenek indarrean jarraituko dute, baliogabetze-aitorpen horren eraginik jasan gabe.

28. HITZARMEN OSOA

Baldintza hauek eta bertan berariaz aipatzen diren dokumentuek osatzen dute zure eta gure artean horien xedeekiko dugun hitzarmen osoa; horrez gain, zure eta gure artean ahoz zein idatziz adostu ahal izan dugun aurreko beste itun, akordio edo promesak ordezkatuko dituzte. Alderdi biok honako kontratu hau gauzatu dugula onartzen dugu; horren harira, onartzen dugu ez garela beste alderdiak egin ahal izan duen adierazpen edo zinez fidatu, ez eta kontratua sinatu aurretik bi alderdiek abian jarritako negoziatioetatik ondoriozta litezkeen adierazpen edo idatziez ere, Baldintza hauetan berariaz adierazten dena salbuetsita. Ez zuk ez guk ez dugu ekintza-gaitasunik izango beste alderdiak kontratu baten dataren aurretik hitzez zein idatziz egindako edozein aitorpen zalantzagarriren aurrean (aitorpen zalantzarri hori iruzurrez egin bada izan ezik), eta beste alderdiak erabili ahal izango duen ekintza bakarria kontratua ez betetzeagatik izango da, Baldintza hauetan ezarritakoaren arabera.

29. BALDINTZA HAUEK ALDATZEKO DUGUN ESKUBIDEA

Zehaztapen eta Baldintza hauek aldatzeko ahalmena dugu. Horiek ez dute atzeraeraginezko izaerarik.

Egindako aldaketekin ados ez bazaude, gure Plataformetan ez erabiltzea gomendatzen dizugu.

30. APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA ETA JURISDIKZIOA

Gure Plataformen erabilera eta horren bidez egindako produktuen erosketa-kontratuak Espainiako legediak arautuko ditu. Plataforma hauen erabilerarekin edo kontratu horiekin lotuta sortzen den edozein gorabehera Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzio ez eskusiboaren menpe egongo da. Kontsumitzaile gisa kontratatzen ari bazara, klausula honetako ezerk ez du eraginik izango indarrean dagoen legediak aintzatesten dizkizun eskubideetan.

31. OHARRAK, IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Pozik jasoko ditugu zure oharrak eta iradokizunak. Helarazi ohar, iradokizun, kontsulta, kexa edo erreklamazio guztiak Baldintza hauen 2. klausulan zehaztutako harremanetarako gure formularioaren bidez, telefonoz edo posta arrunt zein elektronikoz. Gainera, erreklamazio-orri ofizialak ditugu eskuragarri kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat.

900 456 003 telefono-zenbakira deituta edo gure harremanetarako formularioaren bidez eska ditzakezu agiriok. Gure bezeroarentzako arreta-zerbitzuan jartzen dituzun kexak eta erreklamazioak ahalik eta lasterren erantzungo ditugu, hilabete batean gehienez ere. Era berean, jakinaraziko dizugun identifikazio-gako batekin gordeko dira, une oro horien egoeraren berri izan dezazun.

Erabiltzaile bezala zure eskubideak urratu direla uste baduzu, helarazi zure kexak contact_es@bershka.com helbide elektronikora, judizioz kanpoko ebazpena bilatzearren.

Alde horretatik, zu eta gure arteko erosketa gure Plataformen bidez gauzatu bada, EBko 524/2013 Araudiari jarraikiz, jakinarazten dizugu eskubidea duzula gurekin batera kontsumo irisgarriari buruzko judizioz kanpoko ebazpena eskatzeko, honako Internet helbide honen bidez: <http://ec.europa.eu/consumers/odr/>.

Azken eguneratzea: 2020/10/13

ERANSKINA

Atzera egiteko formularioa

Osatu eta bidali formulario hau, datu hauek dituen kontratuan atzera egin nahi baduzu:

BERSHKA BSK España, S.A., BERSHKA izen komertzialarekin jarduten duena, helbide

honetan: "Avda. de la Diputación, Edificio Inditex, 15143-Arteixo (A Coruña)", edo helbide elektronikoa honetan: contact@bershka.com.

Formulario honen bidez jakinarazten dizuet datu hauek dituen salmenta-kontratuan atzera egiten dudala (izartxo bat dute derrigorrezko eremuek):

Egun honetan eskatua/jasoa (*):

Kontsumitzailearen izena:

Kontsumitzailearen helbidea:

Kontsumitzailearen sinadura (formulario hau paperean aurkezten bada soilik):

Data:

(*): Ezabatu, behar ez bada

**‘BERSHKA APP-AREN FUNTZIONALITASUNAK ERABILITZEKO
ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK**

Zehaztapen eta baldintza hauek (aurrerantzean, “Baldintzak”) berariaz arautzen dituzte BERSHKA markako aplikazioan eskuragarri dauden zerbitzuak eta funtzionalitateak (ondoren zehaztuko den moduan), www.bershka.com webgunearen Erabilera eta Erosketa Baldintzez gain.

Hauek dira aplikazioaren zerbitzuetako batzuk: (i) produktuak aplikazioaren bidez erosteko aukera, Online dendan egindako erosketatzat hartuta eta, beraz, www.bershka.com webguneak dituen Erabilera eta Erosketa Baldintzen mende; (ii) BERSHKA denda fisikoetan egiten diren erosketetan (aurrerantzean, eta dagokion erreferentziaren arabera, “Denda fisikoa” edo “Denda fisikoak”) ordainketak kudeatzeko aukera (aurrerantzean, ‘Wallet’); (iii) BERSHKA online dendetan (aurrerantzean, “Online denda”) egindako erosketen tiketak kudeatzea. BERSHKA BSK ESPAÑA, S.A. sozietateak (IFZ: A78276854) kudeatzen ditu biak Espainian, helbidea honetan: Diputazioaren etorbidea, Inditex eraikina, Arteixo, 15143, Coruña; (iv) baita tiket elektronikoa edo erosketa elektronikoa egiaztagiria lortzeko aukera ere, helburu horretarako bakarrik sortutako QR kodea erakutsiz BERSHKA denda fisikoetan.

1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.1. www.bershka.com webgunean produktuak erostea aplikazioaren bidez

Aplikazioaren bidez, bezeroek aukera dute www.bershka.com webgunean produktuak erosteko. Online dendan egindako erosketatzat hartuko da erosketa, eta www.bershka.com webguneko Erabilera eta Erosketa Baldintzen mende egongo da, bezeroak erostean bertan onartu beharko dituenak.

1.2. Wallet funtzionaltasuna

Wallet funtzionaltasunaren bidez, hauek egin ditzakezu:

- i. Denda fisikoetan egindako erosketei dagozkien tiket elektronikoa lortzea, ordainketa Walleten bidez abiarazten denean edo hurrengo (iv) eta (v) ataletan adierazitakoaren arabera eskatu edo sortzen direnean. Halaber, Online dendako tiket elektronikoa eskuratzeko aukera izango duzu;
- ii. Ordainketa-txartelak eta opari-txartelak kudeatzea: aukera ematen du denda fisikoetan Wallet erabiliz abiarazten den ordainketa egiteko erabiliko diren txartelak gehitzeko. Online salmentaren erosketa azkarra aukeraren bidez gordetako txartelik baldin badago, automatikoki egongo dira erabilgarri, Wallet bidez ordaintzeko txartel gisa aktiba daitezten.

Beste txartel baten datuak sartzean, baimena ematen diguzu gorde nahi dituzun txartelen eta opari-txartelen baliozkotasuna egiaztatzeko. Horretarako, zure txartelean zordunketa bat egin dezakegu mikro-ordainketa segurtasun-sistemaren bidez.

Kasu horretan, gehienez ere hilabeteko epean itzuliko dizugu mikro-ordainketaren zenbatekoa, hura egin zenetik zenbatzen hasita. Txartelak kudeatzeaz gain, aplikazioa exekutatzeko den gailuan gaitutako segurtasun-mekanismoen arabera, baliteke txartel horiei lotutako pasahitza sortzeko eskatzea Wallet-ek.

- iii. Wallet bidez ordainketak abiaraztea: horretarako gaituta dauden denda fisikoetan Wallet-ekin ordainketa kudeatzeko, dendaren langileen jarraibideak bete beharko dituzu.

Edozelan ere, kontuan izan Wallet bidez ordainketa abiarazteko aplikazioak sortutako QR kodea aurkeztu beharko duzula, langileek egiazta dezaten eta denda fisikoko kutxa-gunean gaitutako baliabide teknikoek irakur dezaten.

Aplikazioa exekutatzeko den gailuan gaitutako segurtasun-mekanismoen arabera, baliteke Wallet pasahitza sartzeko eskatzea Wallet-ek, ordainketa kudeatzeko beharrezkoa den QR kodea sortu ahal izateko.

Wallet bidez abiarazitako ordainketetan, arrazoi hartzen duzu eta onartzen duzu tiket elektronikoa bat luzatuko zaizula eta ez zaizula tiketa paperean emango. Denda fisiko batean Wallet bidez ordainketa bat abiarazten duzunean, ordainketa abiaraztean zerbitzuan hautatzen duzun txartelean kargatuko da.

Haiek erosteko ordainketa abiarazteko baimena ematen duzunean entregatuko zaizkizu salgaiak; horretarako, QR kodea erakutsi beharko diezu dendako langileei, eta denda fisikoko kutxa-guneko baliabide teknikoek QR kodea irakurri beharko dute.

Dagokion denda fisikoaren erosketa-baldintzen arabera arautuko da Wallet bidez abiarazten duzun ordainketaren erosketa. Hori dela medio, zure eta dagokion denda fisikoaren arteko kontratuarekin lotutako erreklamazioak BERSHKA BSK ESPAÑA, S.A.ri bidali beharko dizkiozu, edo, kasu jakin horretan aplikatzea bada, adibidez, Espainia ez den beste herrialde batzuetako denda fisikoetan egin direlako, kasuan kasuko erakundearen aurrean. Wallet doako zerbitzua da.

Hala ere, txartelaren igorleak komisioak kobra ditzake txartelarekin ordaintzeagatik. Kontsulta itzazu txartelaren igorlearekin sinatutako kontratuaren zehaztapenak informazio gehiagorako. Halaber, telekomunikazio-zerbitzuen operadoreak kobratu ahalko du Wallet-era sartzeko erabiltzen duzun telekomunikazio-sarea erabiltzeagatik.

Kontsulta itzazu sarearen hornitzailearekin sinatutako kontratuaren zehaztapenak informazio gehiagorako. Adierazitako establezimenduetan ordainketak abiarazteko baino ezingo duzu erabili Wallet. Debekatuta dago Wallet beste helburu batzuetarako erabiltzea.

Horrenbestez, eskubidea dugu erabiltzaile gisa zu ezabatzeko eta, hartara, zure kontua bertan behera uzteko eta erabiltzaile horri dagozkion erantzukizunak eskatzeko, baldin eta erabilera desegokia edo iruzurrezkoa egin baduzu edo Wallet baldintza hauetan nahiz Wallet, aplikazio edota Zerbitzuari aplikatu beharreko beste lege-testu batzuetan jasotako arauak eta prozedurak betetzen ez badituzu.

- iv. Tiketak "eskaneatzea": paperezko tiket batetik abiatuta, haren kopia digitala sor daiteke, tiketean inprimatutako QR kodea eskaneatuz. Une horretatik aurrera, itzulketak egin ahalko dituzu denda fisikoetan tiket hori erabiliz; unean-unean aplikagarriak diren zehaztapen eta baldintzak jarraituz, BERSHKAren politika komertzialaren arabera eta, betiere, indarrean dagoen legeriaren arabera.

- v. Tiket elektronikoa eskuratzea: denda fisikoetan erosketa ordaintzean, tiketa formatu elektronikoa jasotzea eska dezakezu. Horretarako, aplikazioan agertuko zaizun QR kodea aurkeztu beharko duzu, eta automatikoki aplikaziora bidaliko zaizu tiketa.

Une horretatik aurrera, aldaketak edo itzulketak egin ahalko dituzu denda fisikoetan tiket hori erabiliz; unean-unean aplikagarriak diren zehaztapen eta baldintzak jarraituz, BERSHKAREN politika komertzialaren arabera eta, betiere, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Kasu horretan, ez duzu tiketa paperean jasoko. Beraz, funtsezkoa da ulertzea QR hau erabiliz berriaz eskatzen duzula tiket digitala edo erosketaren egiaztagiria formatu digitalean ematea eta, hortaz, uko egiten diozula paperean jasotzeari. Edonola ere, nahi duzunean eskatu ahal izango duzu tiketa paperean. Horretarako, jarri harremanetan gure Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuarekin, BERSHKAREN webgunean argitaratutako edozein komunikabideren bidez.

Nolanahi ere, Wallet-eko edozein funtzionaltasuni dagokionez, lehenetsuna izango du beti tiket elektronikoei buruzko araudiak edo aplikagarri den beste edozein araudik, zeinek Baldintza hauek bete beharko baitituzte.

Erabiltzaile izateari uztea erabakiz gero, aplikazioan gordetako tiket guztiak horretarako adierazitako helbide elektronikora bidaltzeko eskatzeko aukera duzu baja izapidetzeko prozesuan.

1.3. Denda fisikoetan erostean tiket elektronikoa lortzeko funtzionaltasun espezifikoak

Erabiltzaile erregistratua bazara eta, horrenbestez, aplikazioa instalatuta baduzu, baina ordainketa-txartelik erregistratu nahi ez baduzu (Wallet funtzionaltasunari dagokiona), automatikoki agertuko zaizu aplikazioan tiket elektronikoa eta ordainketa-ziurtagiri elektronikoak jaso ahal izateko QR kode eskusiboa.

QR hori erabiliz, berriaz eskatzen duzu tiket digitala edo erosketaren egiaztagiria formatu digitalean ematea eta, hartara, uko egiten diozu hura paperean jasotzeari. Edonola ere, nahi duzunean eskatu ahal izango duzu tiketa paperean. Horretarako, jarri harremanetan gure Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuarekin, BERSHKAREN webgunean argitaratutako edozein komunikabideren bidez.

2. APLIKAZIOAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUEN ERABILGARRITASUNA

Betiere aplikatu beharreko legeria errespetatuz, eskubidea dugu noiznahi aldatzeko, bertan behera uzteko edo ezabatzeke, zure diskrezio osora eta alde zuzenetik jakinarazi gabe, bai oro har, bai erabiltzaile batentzat edo gehiagorentzat, BERSHKA aplikazioaren funtzionaltasunetako edozein edo guztiak, bai eta zerbitzu osoaren edo zati baten erabilgarritasuna aldatu, eten edo ezabatzeke ere, modu berean.

3. ERANTZUKIZUNA

Erantzukizun-bazterketa lege mugatzen den kasuetan izan ezik, ez gara BERSHKA aplikazioaren funtzionaltasunak erabiltzeak sor diezazkizukeen kalteen erantzule.

Konpromisoa hartzen duzu BERSHKA aplikazioa pentsatuta dagoen helburuetarako soilik erabiltzeke eta, hortaz, erabilera desegoki nahiz iruzurrezkorik ez egiteke. Sozietatearen edo edozein hirugarrenen aurrean erabilera desegokiaren ondoriozko kalteen erantzule izango zara.

Erantzukizuna izango duzu honako kasu hauetan:

a) zure ekipoa edo aplikazioari lotutako terminalak, SIM txartelak, helbide elektronikoak edota pasahitzetako edozein zuk baimendutako edozein hirugarrenek erabiltzen dituenean, guk ezer jakin gabe.

b) hardwareak, softwareak, gailuek edo terminalek gaizki funtzionatzeagatik edo aplikazioa exekutatzen den gailuan beharrezko segurtasun-mekanismoak ez ezartzeagatik aplikazioaren funtzionaltasunak erabiltzean erroreak edo akatsak gertatzen direnean.

4. JABETZA INTELEKTUALAREN ETA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK ETA APLIKAZIOAREN BESTE ESKUBIDE BATZUK.

Aplikazioa edo Wallet osatzen duten, edo bertan sartuta dauden, elementuak Sozietatearen edo hura erabiltzeko baimena eman duten hirugarrenen jabetzakoak dira, edo haien kontrolpean daude. Horri guztiari, aurrerantzean, "Jabetza" deituko zaio.

Erabiltzaileak hitzematzen du ez dituela baztertuko, kenduko, trukatu, manipulatu edo inola ere aldatuko:

- Sozietateak edo eskubideen legezko titularrek jabetza intelektual edo industrialaren arloan beren jabetzetan sartzen dituzten oharrak, legendak, argibideak edo ikurrak (adibidez, copyright, ©, ® eta ™).

- Sozietateak edo eskubideen legezko titularrek jabetza intelektual edo industrialaren arloan beren jabetzetan sartzen dituzten oharrak, legendak, argibideak edo ikurrak (adibidez, copyright, ©, ® eta ™). Erabiltzaileak onartzen du, Baldintza hauen arabera, Sozietateak ez diola eskubiderik lagatzen edo transferitzen erabiltzaileari bere Jabetzaren edo hirugarrenen edozein jabetzaren gainean.

Sozietateak baimena ematen dio erabiltzaileari, soilik, Baldintza hauetan adierazitako moduan sartu eta erabiltzeko.

Erabiltzaileek ez dute baimenik Jabetzaren merkataritza-erabilera dakarten jarduerak kopiatzeko, banatzeko (mezu elektronikoak eta Internet barne), transmititzeko, komunikatzeko, aldatzeko, trukatzeko, eraldatzeko, lagatzeko edo, beste edozein modutan ere, zabaltzeko, dela partzialki dela osorik, ustiapen-eskubideen legezko titularrak idatziz berariazko baimenik eman gabe.

Jabetza eskuratu eta erabiliko da, betiere, helburu pertsonal eta ez-komertzialekin.

Sozietateak beretzat gordetzen ditu jabetzaren gaineko eskubide guztiak, besteak beste, haien gainean dituen jabetza intelektual eta industrialeko eskubide guztiak.

Sozietateak ez dio erabiltzaileari klausula honetan espresuki aipatzen ez den beste erabilera-lizentziarik edo -baimenik ematen bere Jabetzaren gainean. Sozietateak eskubidea du Baldintza hauen arabera emandako lizentziak noiznahi eta edozein arrazoiengatik ebatzi edo aldatzeko.

Hala eta guztiz ere, Sozietateak legezko ekintzak abiaraz ditzake erabiltzaileak egiten duen edozein erabileraren kontra, baldin eta:

- hemen zehaztutako zehaztapen eta baldintzak betetzen ez baditu;
- Sozietatearen edo legezko titularra den beste edozein hirugarrenen jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak edo antzekoak urratzen baditu; edo aplikagarri den edozein araudi hausten badu.